

# ELEANIZTASUNERANTZ

SAMANIEGO IKASTETXEA

2015-2017



Justifikazioa

Hizkuntza plangintza

Eleaniztasuna, euskara ardatz hartuta

Hizkuntzen trataera integratua eta integrala

Proiektuaren helburuak

Helburu zehatzak

Konpetentziak

Edukiak

Ekintzak bereziak

Ekintzen egutegia

Irakasleentzat aurreikusitako prestakuntza-jarduerak

Bibliografia

## Justifikazioa

Gaur egun europarrok dugun gizartea ikusirik, mugikorra eta aniztasun handikoa, ezinezkoa iruditzen zaigu hizkuntza gutxitu bat - euskara- gure gizartearen hizkuntza bakar gisa planteatuz mantentzea eta indarberritzea. Euskarak aurrera egingo badu, bi elementu hauek uztartzea lortu behar dugu: alde batetik, euskarak bere hizkuntza eremuan behar duen garapen osoa lortzea, horretarako behar den norbanakoen konpromiso aktiboa bultzatuz, eta, bestetik, euskaldunok beste hizkuntzen ezagutza eta erabilera erdiestea: lekuan lekuko ukipen hizkuntzaren ezagutza sendoa eta hura erabiltzeko gaitasuna, bai eta gaitasun zabala eta nazioarteko komunikaziorako hizkuntza nagusi batean gutxienez.

## Hizkuntza plangintza

Aurrebaldintza nagusia honakoa da: **euskararen eskola mailako nagusitasun estatusa zaintzea.**

Gure gizartearen egoera soziolinguistikoan, hizkuntza gutxiagotu bat dugu, euskara, eta eskolak funtsezko eginkizuna du hizkuntza hori berreskuratzen. Hainbestean, eskola barrua euskararen nagusitasuna ziurtatu beharko litzateke eleaniztasun planteamendu bat egin aurretik. Euskararen lekua ziurtatua ez badago, ez bakarrik ikaskuntza hizkuntza bezala, baizik eta eskola komunikazio eta elkarbizitzarako hizkuntza bezala, beste hizkuntza inguruko berrikuntza edo eta indartze planteamenduek kolokan jar ditzakete euskararen garapena, bereziki, ingelesa bezalako prestigio sozial handiko hizkuntza bati buruz ari garenean.

Hortaz, euskara ikasketa eta komunikazio hizkuntza nagusi bezala mantenduz eta beste hizkuntzen banaketa ahalik eta eraginkorra bilatuz, hizkuntzen irakaskuntzarako honako hizkuntza plangintza orokorra proposatzen du egitasmoak, lekuan-lekuko berezitasunetara egokitu daitekeena.



### **Eleaniztasuna, euskara ardatz hartuta**

Kontuan izan behar da XXI.mendeko euskal gizartea eleaniztasuna dela eta, beraz, eskolak nahitaez lortu behar ditu herritar eleaniztasunak. Horregatik, mundu gero eta elkarlotuago honetan- non hainbesteko garrantzia duten jakintzaren gizarteak, informazio-eta komunikazio-teknologiek eta pertsonen mugikortasunak-, hizkuntza ofizialez gain jakin behar dira, ezinbestean, hizkuntza global esaten zaien etako bat edo batzuk, eta era horretan bultzatu pertsonak elkar ezagutzea, ideiak trukitzea eta kulturek elkar ulertzea.

Euskal eskolak elebitasuna bermatzeko duen erronkaz gaien, badu beste helburu bat ere: pertsona eleaniztasunak lortzea, gutxienez atzerriko hizkuntza bat behar adina dakitenak. Ikuspuntu eleaniztasunean, pertsona baten esperientzia hedatu ahala hizkuntza baten kultur inguruneetara (familiaren hizkuntza, gizarte osoarena, beste herri batzuetako hizkuntzak, pertsonak ez dituzten hizkuntza eta kultur horiek gordetzen buruko konpartimentu berezitan; aldiz, bere komunikaziorako konpetentzia osatzen dute hizkuntza-jakintza eta –esperientzia guztiak, eta hizkuntzak elkarrekin harremanetan daude. Ikuspuntu horrek erabat aldatzen du hizkuntza baten irakaskuntza. Kontua ez da bi edo hiru hizkuntza eskuratzea, zein bere aldetik. Aldiz, hizkuntza-gaitasun guztiak biltzen dituen hizkuntza-bilduma bat garatu nahi da.

### **Hizkuntzen trataera integratua eta integrala**

Curriculum erabakiei dagokionez, bada oinarrizko printzipio bat, gure egitasmoaren zutabe dena, **hizkuntzen curriculum integratua**. Pertsona batek bizi dituen hizkuntza guztiak ez dira bata bestearen ondoan paraleloan garatzen besterik gabe; izan ere, gaitasun linguistiko orokor baten pean bildurik eraikitzen dira, haiek konparatu, kontrastatu eta etengabeko elkarrekintzan dituzten pertsonak, konpetentzia eleaniz integratua lortzeko. Beraz, hezkuntza baldintza egokiak izanez gero, hiru hizkuntzekin jokatu behar izateak abantailak ekar ditzake, hiru kodeekin jokatzean ikaslearen gaitasun linguistiko orokorrak aberasten eta sendotzen baitira hizkuntzen independentziaren printzipioari jarraituz (J. Cummins).

Hizkuntzak modu integratua irakastea hainbat ebidentziaren emaitza da:

- Ikasle elebidunak edo eleaniztasunak etengabe eskura ditu hainbat hizkuntza eta haietan ikasitakoa, hornidura kognitibo eta emozional moduan.
- Hizkuntza-ikasketak hizkuntza batzuetatik besteetara transferitzen da.
- Hitzunek parte hartzen dute inguruneetan hainbat hizkuntza egotea aldi berean.

Bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean kompetentzia lortzeko bidean, hizkuntzen curriculum integratu baten bidez eta curriculum-arlo guztietan, **printzipio** hauek onartu behar dira:

- Hizkuntzen irakaskuntza inklusion oinarritu behar da, hau da, ikasleen jatorrizko hizkuntza edozein izanik ere, denek bere kompetentzia eleaniztasuna osoki garatzeko bidea eman behar du.
- Hizkuntzen irakaskuntza erabileran oinarritu behar da, hau da, hizkuntzak erabilera sozialetan eta akademikoak ikasten dira, eta komunikazioaren behar pragmatikoak dira kodea menderatzeko bidea jartzen dutenak.
- Hizkuntzen irakaskuntza ikuspuntu komunikatiboan oinarritu behar da, hau da, ikasgelak komunikazio-gune pribilegiatu bihurtu behar dira, ikasleek modu eraginkorrean parte ahal izan dezaten denetariko komunikazio-jardueratan.
- Hizkuntzen irakaskuntza hizkuntzekiko eta hitzunikiko jarrera positiboak garatzean oinarritu behar da, kontuan hartuz hizkuntzek zenbateko garrantzia duten harreman sozialetan eta gizabanakoen garapen emozionalean.
- Eskolan, curriculum-arloak irakatsi eta ikasteko prozesuak dira hizkuntza erabiltzeko eremurik eta egoerarik ohikoenak eta naturalenak; beraz, hizkuntza eta edukia integratzea komeni da.

Printzipio horiek beharrezkoa egiten dute komunikazio-proiektu esanguratsuen bidez irakastea, testua delarik oinarritzko komunikazio-unitatea; ikaskuntza sekuentzia didaktikotan egituratzea, komunikazio-lan zehatz bat lortzera bideraturik, eta prozedurazko edukiak lehenestea, “**egiten jakitea**” eta ez adierazpenezko jakintza hutsa.

## **Proiektuaren helburuak**

- *Orokorrak 2 urtetarako*

Hizkuntza arlo bateratu honen xedea honakoa da: **ikasleen komunikazio gaitasunak garatzea, hizkuntza(k), bizitzako egoera eta behar guztietarako tresna eragingarri gisa erabil de(it)zaten.**

J.M. Artigal hizkuntzalariaren hitzak erabiliz: *“Hizkuntzak ez dira aurrez ikasten, gero erabiltzeko; erabili ahala jabetzen gara hizkuntzaz”*

## **Proiektua aurrera eramateko osatu den batzordea**

**ITSASO NOVAL IGLESIAS (Koordinatzailea)**

**ARANTXA MENENDEZ TXOPITEA**

**SILVIA MATEO ORUS**

Hauexek dira, Derrigorrezko Hezkuntzaren amaieran Hizkuntza bakoitzerako lortu behar diren helburu hauek:

<p>Ikasleek gaitasun hauek eskuratzea <b>da Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura</b> irakasgaiek Lehen Hezkuntzan izango duten helburua:</p>	<p>Honako gaitasun hauek lortzea du helburu <b>Atzerriko Hizkuntza</b> irakasteak Lehen Hezkuntzan:</p>
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Modu bateko edo besteko ahozko diskurtsoak eta diskurtso idatziak ulertzea eta interpretatzea, ulerpen hori komunikazio- eta ikaskuntza-egoera berriei aplikatzeko.</li> <li>2. Hizkuntza egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzea ahoz nahiz idatziz, komunikazio-premia guztiak behar bezala betetzeko.</li> <li>3. Era egokian elkarrizketan aritzea era askotako egoeratan, errespetuz eta lankidetzaz asmoz, hartara norberaren sentimenduz eta ideiez ohartzeko eta norberaren jokabidea kontrolatzeko, eta jendartearen eraginkortasunez komunikatzeko eta jakintza talde-lanean eraikitzeko.</li> <li>4. Gizarte-hedabideak, informazio- eta komunikazio- teknologiak eta beste iturri batzuk erabiliz komunikatzea eta lankidetzaz aritzea, informazioa lortzea, hautatzea eta prozesatzea, eta jakintza eraikitzea eta bizitza</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Eskola-ingurunean komunikazio-egoera arruntei dagozkien ahozko diskurtsoa eta diskurtso idatzia, ikasleen bizipen eta interesekin lotutakoak, ulertzea, diskurtso horiek interpretatzea, eta irakurketaren edo entzunaldiaren emaitza helburu pertsonalak, sozialak eta akademikoak betetzeko erabiltzea.</li> <li>2. Ahozko adierazpen eta adierazpen idatzi egoki, koherente eta zuzenak egitea ikastetxeko komunikazio-egoeretan. Adierazpenak gelan aurrez landutako gaien buruzkoak izango dira, eta komunikazio-premia arruntei erantzuteko ereduaz baliatzeko aukera izango dute ikasleek.</li> <li>3. Era egokian elkarrizketan aritzea eduki eta garapen ezaguneko egoera arruntetan, hitzezkoak eta hitzezkoak ez diren prozedurak erabiliz, errespetuz eta lankidetzaz giroan; era horretan, norberaren sentimenduz eta ideiaz ohartzeko eta norberaren jokabidea kontrolatzeko, jendartearen eraginkortasunez komunikatzeko, eta jakintza taldean eraikitzeko.</li> </ol>

<p>sozialean parte hartzea.</p> <p>5. Hizkuntzen erabilpen-sistemei eta -arauei buruzko gogoeta egitea, hizkuntzak ulertzeko eta sortzeko prozeduren harian, hartara hizkuntzak egoki, koherentziaz eta zuzentasunez erabili eta behar bezala komunikatu ahal izateko hainbat giro sozial eta kulturaletan; betiere, alde batera utzita hizkuntzaren estereotipoak, hau da, edozelako balio-judizioak eta aurreiritziak.</p> <p>6. Ikasgelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasunari aitorpena eta balioa ematea, hizkuntza aniztasunarekiko jarrera ona edukitzeko, euskara erabiltzeko eta hizkuntza gutxitua normaltzearen aldeko jarrera izateko. Horrekin batera, hizkuntza guztiak komunikazio tresna egokitzat eta kultura-ondareztat hartu behar ditu ikasleak.</p> <p>7. Ulertuz irakurtzea hizkuntza-erabilera anitzeko esparrutako testuak, ikasleen esperientziekin eta interesekin zerikusia dutenak, eta, horren bidez, irakurzaletasuna bultzatzea, informazio-iturria eta nortasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeko sorburua den aldetik.</p> <p>8. Literaturaz gozatzea, genero askotako literaturatestuak irakurriz eta entzunez, bai euskal literaturakoak, bai inguruko literaturetakoak, bai literatura unibertsalekoak. Jarduera horiek gozamina eman behar diote ikasleari, eta baliatu egin behar ditu sentikortasun estetikoak handitzeko,</p>	<p>4. Gero eta autonomia handiagoz erabiltzea gizarte-hedabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak, beste iturri batzuekin batera, eta, horren bidez, atzerriko hizkuntzan informazioa lortu, komunikatu eta laguntza ematea.</p> <p>5. Atzerriko hizkuntzak ulermenerako eta hizkuntza-sorkuntzarako erabiltzen dituen prozedurako sistemari eta haren arauei buruzko gogoeta egitea, eta hizkuntza horren fonetika, errimoa, azentuak, intonazioa, hizkuntza-egiturak eta alderi lexikoak ezagutzea, hura egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzeko.</p> <p>6. Beste hizkuntza batzuei buruzko jakintza eta aurretiazko bizipenak erabiltzea, azkar, eraginkortasunez eta autonomiaz ikasteko atzerriko hizkuntza.</p> <p>7. Atzerriko hizkuntza erabiltzea beste errealitate eta kultura batzuk deskubritzeko, eta ulermenezko, errespetuzko eta laguntzazko jarrera baikorrak erakustea haiekiko.</p> <p>8. Literatura-testu sinpleak irakurtzea eta entzutea, hoi bidez plazera sentitzeko, sentikortasun estetikoak handitzeko, hizkuntza aberasteko eta norberaren nortasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeko.</p> <p>9. Jarrera ona eta konfiantza edukitzea norberak ikasteko duen ahalmenean,</p>
--	---



<p>hizkuntza aberasteko eta nortasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeko.</p> <p>9. Literatura-hizkuntzaren oinarriko konbentzioak ezagutzen hastea, testuok ulertzeko eta literatura-xedeko testuak egiteko.</p> <p>10. Jarrera ona eta konfiantza edukitzea norberak ikasteko duen ahalmenean, eta horrela komunikatzeko gaitasuna hobetzea.</p>	<p>eta, horretan oinarrituta, komunikazio-gaitasuna hobetzea.</p>
--	---

### **Helburu zehatzak**

- Hiru hizkuntzak era bateratuan lantzea.
- Ingelesa komunikatzeko gaitasuna hobetzea.
- Ingelesarekiko jarrera positiboa sortze ondo pasatuz.
- Irakasleen hizkuntza gaitasuna hobetzea.

## Konpetentziak

Oinarrizko Hezkuntzaren xedeak edo helburuak oinarrizko konpetentziak lortuz iristen dira.

### **Konpetenziaren eta oinarrizko konpetenziaren definizioa**

ELGAren DeSeCo (2005) proposamenaren arabera, *“ezagueren eta trebetasunen gaintik daude konpetentziak. Eskaera konplexuei erantzuteko abileziak dira konpetentziak, eta horretan, zenbait baliabide psikosozial (tartean, baita trebetasunak eta jarrerak ere) hartzen ditu oinarri, testuinguru jakin batetik abiatuta, betiere”*.

### **Oinarrizko zehar-konpetentziak**

Oinarrizko zehar-konpetentziak hezkuntza-ardatz edo zutabe nagusien arabera sailkatu behar dira. Hauen bidez, ganoraz konpon daitezke bizitzaren eremu eta egoera guztietako problemak ( pertsonalak, soziala, akademikoak eta laboralak), bia diziplina-arlo guztiekin lotutako egoeretan, bai eguneroko bizitzako egoeretan. Zehar-konpetentziak arlo edo ikasgai guztietan lan eginez bultzatu eta sustatu behar dira, eta bizitzaren esparru eta egoera guztietan integratuz eskuratzen eta aplikatzen dira.



1. Ikasten ikasteko konpetentzia: Pentsatzen eta ikasten jakitea.
2. Hizkuntza.komunikaziorako konpetentzia, eta teknologia digital eta mediatikoa erabiltzeko konpetentzia: komunikatzen jakitea.
3. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia: elkarrekin bizitzen jakitea.
4. Norberaren autonomiarako konpetentzia: izaten jakitea.
5. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia. Ekimenez jokatzeko jakitea.

### **Diziplina baitako oinarrizko konpetentzia**

Hauen bidez, berriz, ganoraz konpon daitezke bizitzaren eremu eta egoeretako problemak ( pertsonalak, soziala, akademiako eta laboralak), diziplina-arlo jakin baten baliabide espezifikokoak behar dituztenak. Diziplina baitako konpetentzia horiek diziplina-matrize bat dute oinarri, eta eremu batzuetako egoeren /problemen bidez eskuratzen dira, baina transferitu ere egin daitezke.

#### **Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia: Hizkuntzak eta Literatura.**

Egoera bakoitzak eskatzen duen ahozko eta idatzizko hizkuntza egoki eta ganoraz erabiltzea, euskaraz eta gaztelaniaz, bizitzaren eremu guztietan. Halaber, atzerriko lehen hizkuntza bat egoki erabiltzea egoera eta eremu sozial eta akademikoetan. Horretaz gainera, literaturari buruzko hezkuntza bat edukitzea, norbera eta inguruko mundua hobeto ezagutzeko.

### **Edukiak**

Gizarteko jardueren esparru esanguratsutan hitz egin, idatzi, entzun eta irakurri ahal izateko trebetasunak eta estrategiak dira **curriculum**aren ardatza. Trebetasun horiek hiru multzotan ikasten dira: 1. Multzoa: Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrizketan aritzea. 2. Multzoa: Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea 3. Multzoa: Literatura-hezkuntza. Multzo horiekin lotuta, 4. Multzoa: Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa 5. Multzoak: Hizkuntzaren dimentsio soziala, hizkuntzek sistema gisa duten funtzionamendua, hizkuntzen erabilera-arauak, hizkuntzen arteko erlazioak eta hiztunen artekoak aztertzen dituzte.

Ahozko komunikazioarekin zerkusia duten hizkuntza-trebetasunak ahaztu egin izan dira eskola-sisteman. Oso garrantzitsuak dira, ordea, bai ikasleek komunikatzeko gaitasuna erabat garatzeko, bai gela barruko harremanak garatzeko eta esanahia negoziatzeko; izan ere, horien bitartez garatzen baitira ezagutza- eta hizkuntza-trebetasunak, eragin zuzena dutenak arlo guztietako jakintza osatzeko orduan.

TALDEA	IKASTURTEA	ARLOAK	HIZKUNTZA	SAIOAK	IRAKASLEAK
<b>HH 4-5 urte</b>	2015-2016	Ingelesa	Ingelesa	1, 5 ordu astean	Ingeleseko irakaslea
		Beste guztiak	Euskara	Gainontzeko orduak	Irakasle guztiak
<b>LH 1-2.MAILA</b>	2015-2016	Ingelesa	Ingelesa	2 saio ordu betekoak	Ingeleseko irakaslea
		Gaztelania	Gaztelania	2 saio ordu betekoak	Gaztelaniako irakaslea
		Matematika	Euskara	5 Matematika	Tutorea
		Ingurune		4 Ingurune	
		Euskara		5 Euskara	
		Tutoretza		1 Tutoretza	
Informatika	1 Informatika				
Gorputz Hezkuntza		2 G.H			
Arte Hezkuntza	Euskara	2 A.H.	Arloko irakaslea		

*Eleaniztasunerantz*

		HJA/ Erljioa		1 HJA/Erljioa	
<b>LH 3-4.MAILA</b>	2015-2016	Ingelesa	Ingelesa	3.m. 2 saio ordu betekoak 4m. 3 saio ordu betekoak	Ingeleseko irakaslea
		Gaztelania	Gaztelania	3.m. 2 saio ordu betekoak 4m. 3 saio ordu betekoak	Gaztelaniako irakaslea
		Matematika	Euskara	4 Matematika	Tutorea
		Ingurune		4 Ingurune	
		Euskara		4 Euskara	
Tutoretza	1 Tutoretza				
Informatika	1 Informaitka				
Gorputz Hezkuntza	Euskara	2 G.H.	Arloko irakaslea		
Arte Hezkuntza		2 A.H.			
HJA/ Erljioa		1 HJA/Erljioa			

<b>LH 5-6.MAILA</b>	2015-2016	Ingelesa	Ingelesa	3 saio ordu betekoak	Ingeleseko irakaslea
		Gaztelania	Gaztelania	4 saio ordu betekoak	Gaztelaniako irakaslea
		Matematika	Euskara	4 Matematika	Tutorea
		Ingurune		4 Ingurune	
		Euskara		4 Euskara	
Tutoretza	1 Tutoretza				
Gorputz Hezkuntza	Euskara	2 G.H.	Arloko irakaslea		
Arte Hezkuntza		2 A.H.			
HJA/ Erljioa		1 HJA/Erljioa			

**Ekintzak bereziak**

- Irratsaioa
- Egunkaria
- Literatur astea

TALDEA	IKASTURTEA	EKINTZA BEREZIA	EDUKI MULTZOA	HIZKUNTZA	SAIOAK	IRAKASLEAK
<b>LH 3-4. MAILA</b>	<b>2015-2016</b>	Literatur astea	1.m: Ahozko komunikazioa	Euskara	Literatur astean zehar ordu bat	Euskarako irakaslea
			2.m: Komunikazio idatzia	Gaztelania	Literatur astean zehar ordu bat	Gaztelaniako irakaslea
			3.m.: Literatura-hezkuntza	Ingelesa	Literatur astean zehar ordu bat	Ingeleseko irakaslea
			1.m: Ahozko komunikazioa	Euskara	Hilean ordu bat	Euskarako irakaslea



<b>LH 5-6. MAILA</b>	<b>2015-2016</b>	<b>Irratsaioa</b>	2.m:Komunikazio idatzia  4. M: Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa	Ingelesa	Hilean ordu bat	Ingeleseko irakaslea
		<b>Egunkaria</b>	1.m: Ahozko komunikazioa  2.m:Komunikazio idatzia	Euskara	Hilean ordu bat	Euskarako irakaslea
			4. M: Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa	Ingelesa	Hilean ordu bat	Ingeleseko irakaslea
<b>HH –LH maila guztiak</b>	<b>2015-2016</b>	<b>Irakasle-ikasle arteko hizkuntza harremana</b>	4. M: Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa  5. M: Hizkuntzaren dimentsio soziala,	Ingelesa	Ikasturtean zehar	Ingelesa

Ekintza	IRRATSAIOA	EGUNKARIA	LITERATUR ASTEA	IRAKASLE-IKASLE HIZKUNTZA HARREMANA
<b>Maila</b>	LH 5-6. Mailak	LH 5-6. Mailak	LH 3-4. Mailak  LH 5-6. Mailak	HH - LH
<b>Hizkuntza</b>	Ingelesa	Ingelesa	Ingelesa	Ingelesa
<b>Taldekatzea</b>	Talde txikia	Talde txikia	Gela	Eskola
<b>Denboralizazioa</b>	Hilean saio bat	Hilean saio bat	Literatur astea	Ikasturtean zehar
<b>Baliabideak</b>	Irratia, ikasgela eta IKT	Ikasgela eta IKT	Ikasgela, irratia, IKT, liburutegua	Eskola
<b>Beste proiektuekin lotura</b>	IKT IK/KI Golden 5	IKT IK/KI Golden 5	IKT IK/KI Golden 5	Golden 5

<p><b>Ebaluazioa</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Ea ondo idatzi duten irratsaioko atala (gramatika, lokailuak, ortografia...)</li> <li>- Ea ondo prestatu duten irratsaioko atala (bakarkako lana).</li> <li>- Ea ondo azaldu duten irratsaioko atala (abiadura, ahozketasuna...)</li> <li>- Ea gogotsu parte hartu duen</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Ea ondo idatzi duten egunkariko atala (gramatika, ortografia, lokailuak...)</li> <li>- Ea ondo prestatu duten egunkariko atala (bakarkako lana)</li> <li>- Ea egunkariko atalaren itxura zaindu duen (balio estetiko)</li> <li>- Ea gogotsu parte hartu duen</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ea ondo prestatu duten irakurgaia (bakarkako lana).</li> <li>- Ea ondo azaldu duten irakurgaia (abiadura ahozketasuna...)</li> <li>- Ea gogotsu parte hartu duen</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ea hizkuntzarekiko jarrera ona daukan.</li> <li>- Ea elkarrizketak hasi, mantendu eta amaitzen dituen.</li> </ul>
--------------------------	--	---	--	--

**Ekintzen egutegia**

2015-2016													
Iraila							Urria						
Al	As	Az	Og	Or	Lr	lg	Al	As	Az	Og	Or	Lr	lg
	1	2	3	4	5	6				1	2	3	4
7	8	9	10	11	12	13	5	6	7	8	9	10	11
14	15	16	17	18	19	20	12	13	14	15	16	17	18
21	22	23	24	25	26	27	19	20	21	22	23	24	25
28	29	30					26	27	28	29	30	31	
Azaroa							Abendua						
Al	As	Az	Og	Or	Lr	lg	Al	As	Az	Og	Or	Lr	lg
						1		1	2	3	4	5	6
2	3	4	5	6	7	8	7	8	9	10	11	12	13
9	10	11	12	13	14	15	14	15	16	17	18	19	20
16	17	18	19	20	21	22	21	22	23	24	25	26	27
23	24	25	26	27	28	29	28	29	30	31			
Urtarrila							Otsaila						
As	Ar	Az	Og	Or	Lr	lg	As	Ar	Az	Og	Or	Lr	lg
				1	2	3	1	2	3	4	5	6	7
4	5	6	7	8	9	10	8	9	10	11	12	13	14
11	12	13	14	15	16	17	15	16	17	18	19	20	21
18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28
25	26	27	28	29	30	31	29						
Martxo							Apirila						
As	Ar	Az	Og	Or	Lr	lg	As	Ar	Az	Og	Or	Lr	lg
	1	2	3	4	5	6					1	2	3
7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	8	9	10
14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17
21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24
28	29	30	31				25	26	27	28	29	30	

Maiatza							Ekaina						
As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig	As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
						1			1	2	3	4	5
2	3	4	5	6	7	8	6	7	8	9	10	11	12
9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19
16	17	18	19	20	21	22	20	21	22	23	24	25	26
23	24	25	26	27	28	29	27	28	29	30			
30	31												



Irratsaioa  
 Egunkaria  
 Literatur astea

Astean ordu beteko saioa erabiliko dugu ekintza hauek aurrera eramateko ikasleekin.

## IRAKASLEENTZAT AURREIKUSITAKO PRESTAKUNTZA-JARDUERAK

Klaustroko irakasleen ingles jakintza maila oso anitza da ( A1, B1, B2. C2), hortaz, klaustroko 16 irakasleek jasoko dute formazioa 2015-2016 ikasturtean zehar. Hauek hiru taldetan sailkatuta egongo dira mailaren arabera.

- A2 maila lortu prestatzeko 10 irakasle izango ditugu.
- B2 maila berriz, 6 irakasle.

### ➤ A2 maila lortzeko

10 irakasleentzako,

**NON:** Eskolan

**NORK:** Elduaien akademiak

**NOIZ:** Astero ordu bat eta erdi jarraian.

Parte-hartzaileak:

Almike Torres, Ana Zabala, Garbiñe Alustiza, Maria Jesus Merino, Maria Jesus Iturralde, Ainhoa Agirre, Izaro Cincunegui, Nerea Altuna, Mertxe Allue

Maite Hernandezek (jangelako arduraduna) arratsaldean egingo du formakuntza Bridge akademia batean eguerdian lana egiten duelako (atxikituta doa bere aurrekontua).

### **Helburuak:**

- Oinarrizko esapideak eta hitzak, bai ahoz bai idatziz, ulertzeko gai izatea
- Elkarriketa batean solaskideari galdera eta erantzun errazak egiteko gai izatea
- Gertuko ingurua deskribatzeko gai izatea.
- Testu laburrak eta sinpleak idazteko gai izatea

### **Edukiak:**

- Ulermen: ahozkoa eta idatzia
- Idazmena: idatzizko adierazpena
- Mintzamena: ahozko elkarreragina eta ahozko adierazpena.

<b>ULERMENA</b>	
<b>AHOZKOA</b>	<b>IDATZIA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- eguneroko bizitzako gaietarako buruzko elkarrizketa sinpleak, solaskideen laguntzaz betiere.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai naiz hitz eta izen oso ezagunak ulertzeko baita esaldi sinpleak ere.</li> </ul>
<b>MINTZAMENA</b>	
<b>AHOZKO ELKARRERAGINA</b>	<b>AHOZKO ADIERAZPENA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai naiz modu sinplean komunikatzeko solaskidearen laguntzarekin.</li> <li>- Gai naiz berehalako premiei edo oso gai arruntei buruzko galderak errazak egin eta erantzuteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai naiz esaldi sinpleak erabiliz nire bizilekua eta jende ezaguna deskribatzeko.</li> </ul>
<b>IDAZMENA</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai naiz postal laburrak eta errazak idazteko</li> <li>- Gai naiz nire datu pertsonalak galdetegi batean idazteko</li> </ul>	

- B2 maila lortzeko.  
6 irakasleentzako,
- **NON:** Eskolan
- **NORK:** Elduaien akademiak
- **NOIZ:** Astero ordu bat eta erdi jarraian.

Parte-hartzaileak:

Itsaso Noval, Arantxa Menendez, Ima Goikoetxea, Axun Alkorta, Amaia Agirregomozkorta eta Argitze Ezenarro, Agian datorren ikasturtean denak ez dira eskolan egongo.

**NON:** Eskolan

**NORK:** Elduain akademiak

**NOIZ:** Astero ordu bat eta erdi jarraian.

**Helburuak:**

- Gai zehatzei nahiz abstraktoei buruz diarduten testu konplexuetako ideia nagusiak ulertzeko gai izatea baita ere testu teknikoenak ere, beti ere norberaren espezialitatearen arloak badira.
- Jatorrizko hiztunekin jariotasunez eta naturaltasunez mintzatzeko gai izatea, halako eran non ez solaskide batek ez besteak ez duten ahaleginik egin behar elkar ulertzeko.
- Testu argiak eta xeheak gai askori buruz sortzeko gai izatea eta orokorrean, gai orokorrei buruzko ikuspegi jakin bat aldatzeko, aukera bakoitzaren aldeko eta kontrako argudioak emanez.

**Edukiak:**

- Ulermen: ahozkoa eta idatzia
- Idazmena: idatzizko adierazpena
- Mintzamina: ahozko elkarreragina eta ahozko adierazpena.



<b>ULERMENA</b>	
<b>AHOZKOA</b>	<b>IDATZIA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai naiz konferentzia eta hitzaldi aski luzeak ulertzeko. Era berean argudio konplexuak ere ulertzen ditut, baldin eta gaia gutxi-asko ezaguna badut.</li> <li>- Ulertzen ditut telebistako albistegiak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai naiz gaur eguneko gai ei buruzko artikulua k eta txostenak irakurtzeko, egileak jarrera jakin bat edota ikuspuntu berezia erakusten duenean.</li> <li>- Gai naiz gaur eguneko hitz lauzko literatura testuak ulertzeko.</li> </ul>
<b>MINTZAMENA</b>	
<b>AHOZKO ELKARRERAGINA</b>	<b>AHOZKO ADIERAZPENA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai naiz jatorrizko hitzun batekin normal mintzatzeko berezkotasun eta erraztasun nahikoarekin.</li> <li>- Gai naiz elkarrizketan era aktiboan parte hartzeko eta nire iritziak azaldu eta defenditzeko egoera ezagunetan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Badakit zehatz eta argi hitz egiten nire intereseko gai askori buruz,</li> <li>- Gai naiz gaur eguneko gorabeheren gainean nire ikuspuntua adierazteko, aukera desberdinen alde onak eta txarrak azalduz.</li> </ul>
<b>IDAZMENA</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai naiz nire intereseko gai asko inguruan testu argiak eta xeheak idazteko.</li> <li>- Gai naiz idazlan bat edo txosten bat egiteko informazio jakin bat adieraziz edota iritzi baten aldeko edo kontrakoak emanez.</li> <li>- Gai naiz gutunak idazteko, gertaerei eta esperientziei ematen diedan garrantzia nabarmenduz.</li> </ul>	

## **Bibliografia**

### **EUSKAL CURRICULUMA**

- 175/2007 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzekoa (EHAA, 2007-11-13); 97/2010 Dekretua, martxoaren 30ekoak, aldatuta (EHAA, 2010-04-20).

- 126/2014 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, Lehen Hezkuntzako Oinarrizko curriculuma sortzekoa (BOE, 2014-03-01).

### **HEZIBERRI 2020**

**CUMMINS, J. (1993)**, "Hezkuntza eleaniztasunaren alderdi psikolinguistikoak"

**ARTIGAL, J.M. (1993)**, "Erabileraren garrantzia hizkuntza berri baten eskurapean"

